

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak dira proiektu baten oinarria, ekitaldiak eta esperientzia osoa eskaintzeko beharrezkoak diren elementuak. “Aires del Sur” kasuan, baliabide hauek ezinbestekoak dira balio-proposamena garatzeko, bezeroengana iristeko, harreman iraunkorrak sortzeko eta diru-sarrerak bermatzeko.

Baliabide fisikoak

1. Ekitaldiak antolatzeko espazio fisikoak

- Tokiko aretoak, jauregiko salonak edo kanpoko gune tematikoak erabiliko dira kontzertuak, tailerrak eta gastronomia esperientziak egiteko.
- Espazio hauen kudeaketa eta kokapena ezinbestekoak dira esperientzia integrala eta segurua eskaintzeko.

2. Materialak eta ekipamendu teknikoa

- Soinu-sistema, argiztapena, dekorazio koloretsua eta jantzi tradizionalak.
- Ekipamendu hauek ekitaldien kalitatea bermatzen dute eta bezeroei esperientzia sensoriala bizitzeko aukera eskaintzen zaie.

3. Bulego eta lan-guneak

- Proiektua kudeatzeko eta antolakuntza lanak egiteko gune fisikoa.
- Webgunea kudeatzeko ordenagailuak eta material informatikoa ere funtsezko baliabideak dira.

Baliabide intelektualak

1. Marka eta diseinu bisuala

- “Aires del Sur” marka, logoa, kolore-sistema eta merchandising diseinuak.
- Diseinu bisual hau balio-proposamena modu erakargarrian transmititzen du eta esperientzia integrala indartzen du.

2. Programazio artistikoa

- Ekitaldi tematikoen eta tailerren edukia, musika eta dantza programazioa. ○ Balio estrategikoa du, esperientzia autentikoa eta parte-hartzailea sortzeko.

Marketing eta komunikazio estrategiak

- Sare sozialen edukiak sortzea, webguneko informazioa eta publizitatea.
- Estrategia horiek publiko egokienengana iristea eta ekitaldien ikusgarritasuna handitzea bermatzen dute.

Giza baliabideak

1. Artista eta dantzari profesionalak

- Ekitaldi musikal eta dantza saioak eskaintzeko.
- Esperientzia autentiko eta sentzoriala bermatzen dute, balio-proposamena osatuz.

2. Sukaldari eta gastronomia arduradunak

- Gastronomia esperientziak prestatzeko eta tailer gastronomikoak eskaintzeko.

3. Antolakuntza eta kudeaketaren arduradunak

- Ekitaldien logistikaren, teknologia kudeaketaren eta bezeroekin harremanen arduradunak.
- Webgunea, online denda eta sarrerren salmenta kudeatzea.

4. Marketing eta komunikazio profesionalak

- Sare sozialen edukiak sortzea, komunikabideetan eta aliatuetan publizitatea eta harremanak kudeatzea.

Baliabide finantzarioak

1. Aurrezkiak eta hasierako inbertsioa

- Ekitaldiak, webgunea, merchandisinga eta marketing-kanalak finantzatzeko.
- Finantza-baliabide hauek hasierako fasean proiektuaren egonkortasuna bermatzen dute.

2. Iturri osagarriak

- Ekitaldi korporatiboen kontratuak, merchandise eta tailerren ordainketak diru-fluxu etengabea sortzen dute.